

9 / 08

Irizpena

EGIZARTE BAZTERKERIAREN
MAIATZAREN 22KO 12/1998
LEGEA ETA GIZARTE
ESKUBIDEEN GUTUNARI
BURUZKO ABENDUAREN 27KO
10/2000 LEGEA ALDATU DITUEN

Legearen Aurreproiektuari
buruzkoa

Bilbo, 2008ko uztailak 29



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
www.cesvasco.es

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Grafika, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-354-08

Irizpena

I

AURREKARIAK

2008ko maiatzaren 12an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saileko idatzia aurkeztu zen, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 112/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu dituen Legearen Aurreproiektuaren txostena eskatuz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

Lege-ekimen horrek funtsezko bi xede ditu, Oinarrizko Errenta jasotzen duten 60 urtetik gorako adinekoen arazoarekin zerikusia dutenak: alde batetik, pentsioduentzako elkarbizitza-unitatearen izaera beren beregi jasotzea, horiek familiako beste batzuekin bizi direnean barne, eta, beste aldetik, prestazioaren gehieneko zenbatekoa halako kasuetan gehitzea. Izan ere, pertsona horiek zailtasunak dituzte euren diru-sarrerak gehitzeko, lan-merkatuan murgiltzeko ezintasuna dela medio.

Berehala agiriaren kopia Batzordeko Ohiko Bilkuran parte hartutako kide guztien artean banatu zen, euren proposamenak eta iritzia aurkeztu eta horiek Lan Batzorde Iraunkorrari helarazi ahal izateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoa kontuan izanda. Halaber, 2008ko ekainaren 16an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu eta horrek ondoko Irizpen Proiektua aho batez onetsi du, eta 2008ko uztailaren 29an Irizpen Proiektua Euskadiko EGBren Osoko Bilkurari helarazten da eta aho batez onartzen da.

II EDUKIA

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 112/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu dituen Legearen Aurreproiektuaren testuan zion azalpena, bi artikulua eta bi azken xedapen ageri dira, eta, laburbilduz, hona hemen edukia:

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean, ostean egindako bestelako aldaketekin batera¹, bazterkeria pertsonala, gizartekoa eta lanekoa saihesteko eta bizitza independentea garatzeko behar besteko baliabide pertsonalak, gizartekoak edo ekonomikoak ez dituztenen gizarteratzea bultzatzeko beharrezkoak diren gizarte-izaerako tresnak nahiz prestazio ekonomikoak ezarri dira.

Era berean, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legearen eragina izan du. Lege horretan, Oinarritzko Errenta izateko eskubidea aitortzen da, alde batetik, prestazioaren izatea, eta, bestetik, pertsonak herritarren oinarritzko eskubideak edo gizarte-eskubideak egikaritu eta zio ekonomikoen ondoriozko gizarte bazterkeria saihesteko behar besteko diru-sarrerak izateko eskubidea bermatuz, betiere txirotasun-egoerak ezabatuta. Azaroaren 10eko 8/2000 Legearen bidez ezarritako aldaketa kontuan hartuta, Oinarritzko Errentak eskainitako babesa hedatu egin eta 60 urtetik gorako adinekoak barnean hartuz, orain arte xedapen horretatik kanporatuta egon direnak. Izan ere, Oinarritzko Errentaren gaineko zenbait titularrek, adin hori betetzean, prestazio hori jasotzeari uzten zioten, batik bat, bestelako diru-laguntzak edo prestazioak jasotzeagatik, hala nola, ekonomikoak, medikuarenak, farmaziakoak eta gizartekoak. Hain zuzen ere, orokorrean horrek ekonomiaren eta gizarteratzearen ikuspuntutik kalte nabaria eta justifikaezina eragiten du. Halaber, kolektibo hori berezia da eta babesa nahiz laguntza behar ditu, babesa eta gizarteratzea ebaluatzeko ondoz ondoko azterlanek baieztatu duten bezala². Hori dela eta, pentsioen bidetik bermatutako diru-sarrerak askiezk dira, diru-sarrerak beste bide batzuetatik osatzeko aukera urriak dituzten pertsonen dagokienez. Izatez, zenbait kasutan izan ezean, jadanik ezinezkoa da lan-merkatuan murgiltzea, dela adinarengatik dela lana egiteko ezintasunarengatik.

¹ Arau hori 8/2000 Legearen eta 9/2000 Legearen, biak azaroaren 10ekoak, ekainaren 25eko 4/2003 Legearen, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez aldatu da, Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunari buruzkoa. Gisa bertsuari, arestian, ekainaren 22ko 4/2007 Legearen bidez arau hori eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu dira.

² Izatez, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzak egin berri duen azterlanaren arabera, pentsiodunek Oinarritzko Errentaren titular guztien %15 ordezkutzen dute.

Aipatutako pertsonen prestazioa jasotzeko bideak aurrera egin arren, Oinarrizko Errentaren gaineko gaur egungo arauketak hori eskuratzeko benetako ahalmena modu nabarmenean mugatzen du, eta pertsona horien diru-sarrerren maila askieza dela-eta eskubidea izango dute, baldin eta askieza hori elkarbizitza-unitateak jasotako diru-sarrerren multzoan antzematen bada. Ikuspegi horretatik, kasu horietarako tratamendu zehatza aplikatu behar dela uste dugu. Izan ere, multzo osoaren zenbaketa egiteko erregela orokorrak familiako solidaritatea eta elkarbizitza-unitateen barruko eskala-ekonomiak badira, pentsio baten onuradunek, oro har, oso aukera gutxi dituzte euren egoera ekonomikoa diru-sarrera iturri berrien bidez aldatzeko. Beraz, pertsona horiek independentzia eta autoaskitza ekonomikoa izateko aukerak oso mugatuta geratuko dira.

Horrenbestez, gaitutako oinarri juridikoaren babespean, Legearen Aurreproiektu honek Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 112/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu ditu, funtsezko bi xederekin: pentsiodunen elkarbizitza-unitatearen izaera beren beregi jasotzea, horiek familiako beste batzuekin bizi direnean barne, eta prestazioaren gehieneko zenbatekoa halako kasuetan gehitzea. Izan ere, pertsona horiek zailtasunak dituzte euren diru-sarrerak gehitzeko, lan-merkatuan murgiltzeko ezintasuna dela medio.

Horretarako, 12/1998 Legearekin bat etorriz, elkarbizitza-unitateak ondokoak izango dira: *“Zahartzaroaren, baliaezintasunaren edo alarguntasunaren kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, bere ezkontidearekin edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duen pertsonarekin edo ikuspuntu ekonomikotik horren mende dauden pertsonekin batera”*. Horrez gain, gizarteratzeko hitzarmenak sinatzeko beharrianari dago-kionez adierazitakoaren ariora, *“Kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunei zuzendutako Oinarrizko Errentaren kasuan, prestazioa gizarteratzeko edo lan munduan murgiltzeko laguntza zehatzekin batera bakarrik emango da, kasuan kasuko Gizarte Zerbitzuak, beharrianen diagnostikoa egin ondoren, hori egokitzen edo beharrezkotzat jotzen dutenean”*.

Era berean, Legearen Aurreproiektuak 10/2000 Legean jasotako bi arazo aldatu ditu. Lehenbizi, testuan aipatutakoaren arabera, *“12/1998 Legean araututako kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunen Oinarrizko Errentaren zenbatekoa ondokoa da: LGSren %100, pertsona bakarreko unitateen kasuan; LGSren %125, bi pertsonako elkarbizitza-unitateen kasuan; LGSren %135, hiru edo pertsona gehiagoko elkarbizitza-unitateen kasuan”*. Bigarrenez, testuan adierazten denez, orokorrean *“elkarbizitza-unitateek Oinarrizko Errenta gisa LGSren %125 baino gehiago jaso ez arren, salbuespenez, muga hori pentsioen titularrek konfiguraturako elkarbizitza-unitateek gainditu ahal izango dute, gehienez ere, LGSren %135 arte, bai eta Eusko Jaurlaritzak, beharrianen bilakaera kontuan izanda, arauz zehaztutako kasuetan ere”*.

III OROKORRAK

Halaber, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 18.1.d) artikulua jatorrizko idazketan, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrerak (geroago "Oinarrizko Errenta" gisa ezagututakoa) jasotzeko eskubidearen titularra izateko betekizun gisa "zahartzaroaren ondoriozko pentsio publikoa jasotzeko eskubideari buruzko legeriaren bidez galdatutako gutxieneko adina" baino gazteagoa izatea eskatzen da, hots, 60 urte. Laster egiaztatu zen betekizun horren ondorioz, prestazioaren zenbait titularren baldintza ekonomikoek nahiz gizarteratzeko baldintzek, adin hori betetzean, modu larrian okerrera egiten zutela, pertsona horietako askoren pentsioen bidez bermatutako diru-sarreraren askieztasuna dela medio.

Azaroaren 10eko 8/2000 Legearen bidez, parlamentuak 1999ko azaroaren 26an onartutako erabakia bete zen, Oinarrizko Errenta jasotzeko gehieneko adinaren betekizuna ezabatuz, eta 18.1.d) artikulua idazketa aldatu da. Hori dela eta, legearen arabera, 60 urtetik gorako pertsonak kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioak osatzeko aurkitzen zuten eragozpena ezabatu zen, EAEko gainerako herritarren bizi mailari egokitu dakiokkeen eskubidea, unibertsala eta subjektiboa, egikari dezaten.

Zernahi gisaz, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen ondoriozko prestazioen gaineko arduradunak, aldizka egin dituen ebaluazioetan ikusi duen bezala, 60 urtetik gorako pertsonen kolektiboak gizarte-eskubideen bermea sailhesten duten ezaugarri bereziak aurkezten ditu, hain zuzen ere, pertsona horien zaurkortasuna. Izan ere, Oinarrizko Errenten jasotzaileen artean gehiegi ordezkatuta egoteaz gain, diru-sarrerak jasotzeko bestelako iturriak eskuratzeko arazo bereziak dituzte (funtsean lanaren bidez). Beraz, independentzia eta autoaskitza aukerak oso mugatuta geratzen zaizkie.

Orain gure esku artean dugun lege-ekimenaren xedea zailtasun horiek konpontzea da. Horretarako, 12/1998 Legearen eta Gizarte Eskubideen Gutunaren (10/2000 Legea) ondoriozko betekizun batzuk aldatu dira, horien artean, ondoko definizioak: 60 urtetik gorakoen "elkarbizitza-unitate independentea" (prestazioa jaso dezaten, beste pertsona batzuekin bizi arren), gizarteratzeko eta/edo lan munduan murgiltzeko hitzarmenak sinatzeko nahitaezotasuna (Gizarte Zerbitzu egokiak horren beharri zana baloratuko du), eta prestazioaren zenbatekoak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren aipamenarekin (ehunekoak eta kolektibo horrentzako muga igo dira).

Oro har, gure irizpenaren mende jarritako Legearen Aurreproiektuaren aburuz, bereziki zaurkorra den kolektiboaren (adinekoak) beharri zanei arreta ematera zuzendutako baliabide publikoak areagotuko dira, horiek gizarteratzeko xedearekin. Halaber, garatutako gizartearen testuinguruan, eta gurea bezalako ongizate maila

altuekin, Euskadiko EGBren ustez, egokia izan da gizarteratzeko politiken finantzaketa. Bada, baldintza horiek proposatutako arauketa-aldaketetan betetzen dira. Hortaz, ekimena egokitzat jo dugu.

IV ONDORIOAK

Euskadiko EGBren ustez, egokia izan da *“Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 112/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu dituen Legearen Aurreproiektua”*ren izapidetza, aholku-organoak egindako oharrak aintzat hartuta.

Bilbon, 2008ko uztailaren 29n

Lehendakariaren ikus onetsia
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari nagusia
Javier Muñecas Herreras